



ZURI

GAIZKA CHAMIZO

SAIOA IRIBARREN

ANDER BASALDUA

Espetxeek presoengan duten eragina aztertzen duen melodrama

Espetxean oso erraz sartu daiteke baina bertatik ateratzea ez da inoiz erraza izan. Zoritxarrez sistema kapitalistak oraindik erabiltzen dituen instituzio zaharkitu hauetan gertatzen diren istorioetariko bat da hau.

"Sartu, zarata sortu gabe... ixo!!! Gaur zure lehenengo eguna da..."



ARETOKO IKUSKIZUNA - EUSKARAZ - HELDUENTZAT



IRAUPENA: 25min

-

AGERLEKUA: 5x4m



EKOIZPENA

Goitibera

**GIDOIA ETA
ZUZENDARITZA**

Saioa Iribarren

ANTZEZLEAK

**Gaizka Chamizo
Ander Basaldua**

Giza eskubideak - Kartzela - Zigorra - Isolamendua - Giza harremanak

"(...)Dena den, arratsalde osoko egitarauaren tanto nagusia Goitibera konpainiaren Zuri antzezlanak izan da, alde handiz gainera. Irakurle finek gogoratuko dutenez, Goitiberaren azken antzezlanak Kasilda, bukatzen ez den sua izan da, donostiar emakume iraultzailearen omenez eginak, eta, konpainiaren ildo sozial konprometituari jarraituz, espetxeek presoengan duten eragina aztertuko dute orain honetan, Saioa Iribarrenen testu batekin eta haren zuzendaritzapean.

Gaiaren laztasunarekin bat eginez, indar handiz hasi da emanaldia. Kartzelako funtzionarioa (Gaizka Chamizo) eta presoak (Ander Basaldua) elkarren alboan agertu dira, publikoari begira, tente eta argi zuriko fokuen pean, zaindaria uniformeak jantzita eta presoak barruko arropa zuria jantzita. Bien artean laukizuzen zuria batek marraztu ditu ziegaren mugapenak, eta emanaldiaren denbora laburrean agerian geratu dira presoaren bizirauteko estrategiak, sistemak pertsonak suntsitzeko dituen eraketa eta funtzionarioaren moral korapilatsua.

Oso era asertiboan gertatu da guztia, alferrikako emozio merkerik sortu gabe, eta beharbada horregatik egin zaigu sarkorragoa taula gainean gertatzen zena: esandako horregatik, argien diseinu apal baina esanguratsuagatik eta bi antzezleek erabateko sendotasunagatik. Protagonista biak ilunean desagertzen zirelarik Leteren eta Laboaren Ihes beteak abestu dute ahots bitan, eta ikusleek txalo bero-beroekin eskertu dute hain elementu xume eta gutxiarekin hainbesteko dentsitatea lortu izana."

Agus Perez - BERRIA- 2022ko apirilak 20

KRISELU SARIA



ANTZERKI ARINA 2022

PABELLÓN Nº6

ARTE ESZENIKOAK

KRISELU saria euskarazko piezarik onenari eta Aktore onenaren saria Ander Basalduarentzat, Pabilioi 6-ko antzerki arinaren IX. jardunaldietan.

(Saioa) 653104296

info.goitibera@gmail.com



- www.goitibera.info -

(Ander) 665732307

cia.goitibera@gmail.com

